



William A. Douglass 2006ko bake prozesuko bitartekari ezezaguna

AEBetako Renoko Uni bertsi tateko euskal departamenduaren sortzailak euskal gatazka konpontzeko lanak egin zituen 2003-2004an Genevako Henri Dunant Zentroaren eskariz.

«Negoziazioa eta akordio politikoa behar dira gatazka konpontzeko»

■ William A. Douglass

Itzulpena: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Alex Larretxi

Gure pertsonaia protagonistaren curriculum osatzera jo eta honela esan genezake, aski labur:

William A. Douglass (Reno, Nevada, 1939). Gizarte antropologian doktorea da Chicagoko Unibertsitatean (1967). Urte horretan bertan UNR Nevada-Renoko Unibertsitatean Euskal Ikasketen Programa abiarazteko ardura hartu zuen. Hogeita hamahiru urtez jardun zuen lan horretan, 1999aren amaieran erretretan sartu arte.

Hogei liburu eta ehun artikulua inguru ditu argitaratuak. Lehen-lehen lanak izan zituenen artean dira, besteak beste, *Death in Murelaga: the social significance of funerary ritual in a Spanish Basque village* (1969), *Echalar and Murelaga: opportunity and rural depopulation in two Spanish Basque villages* (1973), edota *Amerikanuak: the Basques of the New World* (Jon Bilbaorekin elkarlanean, 1975). Ondotik etorri ziren *Beltran: Basque sheepman of the American West* (1979), *Emigration in a south Italian hill town: an anthropological history* (1984), *Basque shepherders of the American West* (Richard H. Lanerekin batera) (1985), *From Italy to Ingham: Italians in North Queensland* (1995), *Terror and taboo: the follies, fables and faces of terrorism* (Joseba Zulaikarekin) (1996), *Azúcar amargo: vida y fortuna de los cortadores de caña italianos y vascos en la Australia tropical* (1996), edota *La vasconia global: ensayos sobre las diásporas vascas* (2004).

Migrazio, etnonazionalismo eta gisako lanak ez bezalakoak ditu, berriz, bere aitaren biografia *Tap dancing on ice: Jack Douglass* (1996) eta *Casting About in the Reel World* (2002) arrantza liburua.

Egin duen lan eskergaren ordain, hainbat sari eta merezimendu jasoa da. Esaterako, 1984an Honoris Causa doktore izendatu zuen EHUk. 1989an, Ohorezko Zerrendan jarri zuen Basque Studies Society of America elkarteak. 1998an, Ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak. 1999an Urteko Ikerlari Gailena izendatu zuen UNR Nevada-Renoko Unibertsitateak eta Irakasle Gorenaren Saria ere eman zioten. Urte horretan bertan, Lagun Onari saria eman zion Eusko Jaurlaritzak... Duela lau urtetik hona, berriz, indarrean da William A. Douglass Irakasle Bisitari Gorena ikerketa-beka, Renoko Euskal Ikasketen Zentroaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez abiarazia. Gaur egun Nevada-Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko irakasle emeritua da...”

Honako testu honetan, ordea, bestelako dimentsio bat hartu du William A. Douglass alderti biografiko eta profesionalak. Ondoko lerrootan, Douglass euskal gatazka konpontzeko lanetan izan zuen parte-hartzeari buruz ari da, hau da, egoitza Genevan duen Elkarriketa Humanitarioa Sustatzeko Henri Dunant Zentroaren eskariz kontratupean egin zituen askotariko gestio eta aurrera-atzeak kontatzen ditu. Haien lehenengo eskariari emanda-



ko ezetza, hurrengo baiezkoa, Euskal Herrira joan-etorriak, Ibarretxe lehendakariarekin izandako bilera, erabilitako estalgarria, bateko eta besteko euskaldunekin burututako harremanak, ETArekin egindako kontaktua, Genevako bulegoaren jokoak, ETAREN su-etena, Loiolako elkarrizketak... 2003ko udazkenetik 2004ko udaberrira bitartean egindako urratsak.

HDCrekin sinaturiko kontratuak isilik egotera behartzen zuen aldi luze batez. Epea igarota, bere egia kontatzera dator Renoko antropologoa, 2008ko irailaren 20an itxitako lekukotasun zuzenaren bidez.

Miel A. Elustondo

2003ko udazkenean hasi eta 2004ko udaberria bitarte gertatu zitzaizkidan zenbait gorabeheraren bilduma duzu jarraian datorrena. 2006ko martxoan ETak agindu zuen menia aurreko negoziazioetan izan nuen esku hartzeari dagozkio. Baina, ezer kontatzen hasi baino lehen, zenbait ohar egin nahiko nituzke.

Lehenik, esan nahiko nuke Espainiako eta Euskadiko gobernuen arteko liskar prozesuaren argazki handiaren alderdi bati buruz besterik ez naizela ari, hau da, etorkizuneko harremanak beste era batekoak izan daitezzen eragingo duen prozesuaz. Behin ere ez nuen eduki –eta ez daukat–, informazio pribilegiaturik ez protagonismorik itsaso zabal horretan.

Bigarren, neure gisa ari naiz idazten protagonista honen oroitzapenak, eta oso litekeena da gertakarietan parte hartu zuten beste alde batzuek bestelako ikuspegia izatea. Alegia, momentu kritikoa haiei buruzko neure uste eta interpretazioak ari naiz adierazten, besteen gainean espekulatzen dudana bitartean. Litekeena da beraiek nire hitzak ukatzea, hau da, haien iritzi eta arrazoiei buruz ari naizenan.

Azkenik, esan nahi dut nahiko kezka nituela, hasieran batik bat, halako lan batean sartzeko. Eginkizun hura oso zegoen urruti nire antropologo ibilbide akademikotik, bai eta hari buruz dudana irizitik ere. Nire diziplinaren historian amaiezina da gure subjektuen bizitzako auzi kritikoei buruzko eztabaida. Batetik, Esku-hartze antropologia izeneko dugu, abokatutzatik ekintzara bitarteko parte-hartzea aldarrikatzen duena. Bestetik, ikertzaileari distantzia eta inpartzialtasun halako bat eskatzen dioten ikuspuntua dugu. Bi jarrerak ere termino

moraletan oinarritzen dira, eta bata zein bestea erraz eztabaida daitezke.

Tesi ikerketa Espainia aldeko bi euskal herritan egin ondoren, Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Programa fundatu eta bertan osatu nuen nire karrera. Inondik ere, egonaldi profesional horrek antropologo esku-hartzaile egin nau, nolabait. Horrela esango nuke. Dena dela, beste maila batean, Boasen jarraitzaile naiz antropologia zientifikoa sustatzen duen heinean, hau da, sinesten dut gai bat nola-halako objektibotasunez aztertzeko posibilitatean, gaur egun boladan dagoen joeraren kontra, subjektibotasuna eta egia jakiteko ezintasuna defendatzen baititu. Ikerketa bakoitza perspektibotasun ariketa da, eta errealtate guztien artean berea sortzera jotzen du. Franz Boasena da erreferentzia, amerikar antropologia berriaren aitapontekoarena, inondik ere. Antropologo horrek lankideak kritikatzera jo zuen haiek Lehen Mundu Gerra garaian beren lan eskarmentua aliatuen alde jarri zutelako, azterketa inpartzial antropologikoak burutzeko gaitasuna zalantzan jarriz. Amerikako Antropologoen Elkarte AMAk gaitzetsi egin zuen Boasen jarrera eta elkarteak ez zuen 2005 arte bere lehen presidente izandakoaren kontrako gaitzespena jaso!

Carter Zentroaren inplikazioa

Euskal politikako gaiei dagokienez, eta ETari dagokionean batik bat, aldi behingo atal eta argitalpen bidezko begirale eta analistatzat daukat neure burua, bestelako protagonismorik gabekoa. Salbuespen batekin. 1995ean, nire adiskide Joseba Zulaikaren eskariz, Euskadin Bake Prozesua Sustatzeko Nazioarteko Batzordea sorrarazi zuen ahaleginean esku hartu nuen. Garai hartan, Nevadako



ARTXIBOA



ALBERTO ELOSEGI

Carter Zentroaren inplikazioa bilatuz eta Jonan Fernandezaren eskariz, 1995ean Elkarrik antolatutako Bake Konferentziarako bitartekaritza lanean aritu zen Douglass. Ezkerrean, Elkarrik 2002an antolatutako Bake Konferentziaren aldeko manifestazioa.

“Andrew eta Martinek kontratua sinatzea eskatu zidaten, Zentroaren aholkulari, Euskal Herrira joan eta behar bezain luze bertan egon nendin gastuak ordainduta, ondoren Genevara itzuli, hitz egin eta estrategia erabakitzeke asmotan”

BSP Euskal Ikasketen Programaren zuzendari nintzen, eta Elkarriko buru Jonan Fernandezek ekimean parte hartu behar genuela esanez etorri zitzaidan Zulaika, hau da, Carter Zentroa konbentzitzen zenean, euskal gatazka politikoan ikustekorik zuten alderdi guztien (ETA barne) arteko negoziazioan bitartekari lana egin zezan.

Ordurako hamaika elkarrizketa izanak ziren Harry Barnesekin, Carter Zentroko administratzaile nagusiarekin. Aurrera egitekotan, Barnesek baldintzapeko jarrera adierazia zuen lehenago. Erakundearen eskari nagusia zen gatazkaren alde guztiek negoziazioetan parte hartzeko ados behar zutela. Fernandez Renora etorri zen campusean mintzaldia egitera eta, nik, kontu handiz, BSPk ahalegin bateratua babestea onartu nuen. Handik laster, Euskal Herrian nintzen, eta Jonanek eta biok Euskadin Bake Prozesua Sustatzeko Nazioarteko Batzordea aurkezteko prentsaurrekoa eskaini genuen. Ordurako, gauza jakina zen Carter Zentroa nola edo hala tartean zegoela.

Geroago ikusi zenez, gatazkako alderdi bi izan ezik gainerako guztiak proposatutako negoziatioetan parte hartzeko prest izan zitezten lortu zuen Jonanek. Alderdi Popularraren iritzia setatita bildu zuen, baina behin-betiko ukoa izatera heldu gabe. Alabaina, ETAk parte hartzeari uko egin zionean jo zuen erreka ekimenak. Hortaz, ahalegin hark ez zuen ezertarako balio izan eta, nik dakidala, horretan amaitu zen Carter Zentroaren parte-hartzea.

Jakina, bistakoa zen etsipena, baina Jonanek eta biok poliki-poliki hurrengo urratsa egitea erabaki genuen, Euskadin Bake Prozesua Sustatzeko Nazioarteko Batzordeak euskal diasporaren –AEBetako gogoan, batik bat– eta balizko laguntzaile ez eus-

kaldunen artean piztu zezakeen interesa zenbaterainokoa zen jakitea. Bistan zegoen ingeles hizkuntzak nazioarteko arazoetan zuen garrantzia; alegia, bitarteko nagusia zen. Halaber, beharrezkoa zela mundua hizkuntza hartan informatzea, euskal gatazkaren jatorria azaltzeko ez ezik, baita konponbidea aurkitzeko bake mugimenduaren berri emateko ere. Nik, bestalde, auziaren alderdi historiko eta berriago nagusiei buruzko gainbegiratu laburra eskainiko zuen orria zuzentzea eta ingelesez itzultea onartu nuen.

Horrekin batera, batzordearentzako diru-biltze kanpaina ere iragarri nuen gure berripaperaren bidez. Dena dela, laster ikusi zen kalkulu okerrak egin genituela, eta ekimena abiada galtzen ari zela. Hainbat oztupo eta beranteste gertatu ziren argitalpena egiterakoan. Inportanteena, diru-biltze deiak jaso zuen erantzun eskasa. Denera, hirurehun dolar baino gutxiago batu genituen! Ondorioz, nahiz eta Elkarriren eta Reno-Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Programaren arteko harremanak irauten duen –Euskadin Bake Prozesua Sustatzeko Nazioarteko Batzordea ez baita oraindik desegin–, praktikan indargabetuta dago joan deneko hainbat urtetan. Bitartean, 1999ko abenduaren 31n, lanpostua utzi, erretretan sartu eta askoz ere konpromiso txikiagoa dakarren irakasle emeritu postua hartu nuen.

e-posta Henri Dunant Zentrotik

Honenbestez, 2003ko urrian, Genevako Elkarrizketa Humanitaria Sustatzeko Henri Dunant Zentrotik zetorren e-posta jaso nuenean –beraiekin harremanetan jartzeko eskatzen zidaten, euskal gatazkan aholkulari lanak egingo ote nituen–, ezetz esan nuen. Ziurrenera, Carter Zentroak egindako ahaleginaren porrota ere aipatuko nuen.

Zalantzarik gabe, pesimismo handiko garaia zen. Aurreko hilabeteetan Alderdi Popularreko presidente José María Aznarrek zuzentzen zuen Espainiako gobernuak hainbat neurri gogor hartu zituen. Besteak beste, legez kanporatu zuen Batasuna, muturreko ezker abertzalearen alderdi politikoa; era berean, Eusko Legebiltzarreko buru Juan Maria Atutxaren eta parlamentuko mahaiko kideen aurkako akusazio kriminala jarri zuen, Batasunako hautesiak hemiziklotik kanporatzeari uko egiteagatik; halaber, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen, euskarazko egunkari bakarra –zuzendaritza batzordeko kideak atxilotu eta zuzendaria bera ustez torturaturik–, ETaren bozemaile zelako argudioa erabiliz.

Garai hartan, Aznarren eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren arteko harremanak ezin okerragoak ziren. Gauza jakina zen bi liderren artean ez zegoela komunikaziorik, eta urruntzea are handiagoa gertatu zen Ibarretxe lehendakariak, Eusko Legebiltzarraren aginduei jarraiki, autonomia handiagoaren nahia azaldu zuenean –Espainia barruan bertan–, haren kontrakoek independentziaren bidean urrats nagusizat ikusi baitzuten, edota horren parekotzat. Horrekin batera, Espainiako gobernuak desadostasuna adierazi zuen eta Ibarretxe lehendakariak EAEko hautesleen artean kontsulta –loteslea ez izanagatik ere– egiteko asmoa azaldu zuenean, Espainiako kongresuak lehendakaria kartzelara bidean jarriko zuen legea onartu zuen, kontsulta hura egiten bazuen, alegia.

ETA zartakoak jasotzen ari zen bata bestearen ondoren. Frantziako eta Espainiako seguritate indarren elkarlana ez ezik, erakundeetan salatariak infiltratu bide ziren. Aznarren gobernuak garaitua izatea beste etorkizunik ez zion opa ETari, hura desagertzeko denbora kontua zela zioen, eta horixe berresten zuen aldiro-aldiro indarreen zeuden neurri politiko eraginkorren argitan. Gainera, Espainiako bi alderdi politiko nagusiak sozio ziren handizki iragarritako Itun Antiterroristan, non biek ere terroristeekin –ETAz ari ziren, finean– ez zutela negoziatuko zin egiten baitzuten.

Garaian, ondorengo martxoan burutuko ziren hauteskundeen aurreko kanpainen murgilduta zegoen Espainia. Aznar uzteketan zegoen eta haren hurrengoa alderdian Mariano Raxoi zen izatekoa,

herrialdeko hurrengo liderra, itxura guztien arabera. Espainiako ekonomiaren egoera saneatua aldeko argumentua zuela ekin zion PPK hauteskunde borrokarari, baina erreta Aznarrek Bush eta Blairrekin Iraken egin zuen aliantzarengatik, bai eta Espainiako ipar-mendebaldeko itsasertzean gertatu zen petrolio isurtze handiari aurre egiten asmatu ez zuelako ere (Katrina urakanak eragin zuen hondamendia gobernatzeko Bushen administrazioari egin zitzaion kritikaren antzekoa). Hala eta guztiz ere, PPren kanpainaren eraginkortasunaren erpina (nazio mailan, bederen, nahiz eta indar txikiagoa izan horrek Euskal Herrian eta Katalunian), antiterrorismoa zen, euskaldun guztiak terroristatzat edo haien laguntzailetzat deskribatzen zituen erretorika antieuskaldunez jantzirik.

Hitz bitan, euskal gatazkaren inguruko inolako akordio politikorik negoziatzeko giroa ezin izan zitekeen ilunagoa. Haatik, Henri Dunant Zentroak (HDC) ez zuen nire ukoa besterik gabe onartu. Are gehiago, Andrew Marshall zuzendari laguntzailearen telefono deia jaso nuen jarraian, Genevara joateko prest izango ote nintzen galdezka, egun bat edo bi besterik ez bazen ere, beraien proposamena entzuteko. Konbentzitzen dakien pertsonari kontra egitea zailago izan zen e-posta inpersonali bati aurka egitea baino, eta azaro hasieran Suitzan nintzen euskal politikaren inguruko gaiak bazkaldu bitartean eztabaidatzen Andrewrekin eta Zentroko zuzendari Martin Griffiths-ekin. Elkarri entzun eta atzera biharamunean elkartzekotan ginen, nora jo –inora jotzekotan–, erabakitzeko.



Genevako Henri Dunant Zentroaren webgunea da ezkerrekoa. Erakunde honek eskatuta, Douglasssek 2003an ekin zion bitartekaritza lanari Euskal Herrian.

Genevako Henri Dunant Zentroa

Oso inpresionatuta nengoen Andrew, Martin eta, batez ere, Zentroarekin. Iritsi nintzen egunean israeldar eta palestinar mordoxka zeuden bilkura gelan, Genevako Ituna izenez ezagutuko zenari azken ukituak ematen. Zentroan bertan Aceh-n egindako ahaleginaren porrotaren berri eman zidaten, non, garai hartan, nazioarteko bake indarra zuzendu zuen. Era berean, Nepalen egiten ari ziren lana azaldu zidaten, eta nola ari ziren Darfurren, hura auzi domestiko bihurtu baino lehen. Ez zegoen zalantzarik, HDC Henri Dunant Centre benetan ari zen, baina, eta ni?

Biharamuneko bilkuran nire erretiratu egoera azpimarratu nuen, orduz gero ez nituela Euskal Herriko gertaerak hain hurretik segitzen, eta urtea baino gehiago zela han izana ez nintzela. Aldi berean, nire zalantzak adierazi nituen, Zentroak inolako negoziazorik hasi edo erraztu behar ote zuen. Iruditzen zitzaidan aukera haren bideragarritasuna zehazteko zenbait aste igaro beharko nituela Euskal Herrian. Ez nengoen ziur nola hartuko ote zuten nire lagun eta ezagunek akordio negoziatu baten posibilitatea, baina ziur nengoen era guztietako iritziak jasoko nituela, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera betiere.

Andrewk eta Martinek kontratua sinatzea eskatu zidaten, Zentroaren aholkulari, Euskal Herrira joan eta behar bezain luze bertan egon nendin gastuak ordainduta, ondoren Genevara itzuli, hitz egin eta estrategia erabakitzeke asmotan. Hasteko, ados izan nintzen, nire andrearen baieztokoaren gorabeheran. Izan ere, garai hartan Janen zaintzaile nintzen, hezurretako minbiziaren ondoko mediku tratamendupean zegoenez. Etxera itzuli nintzen, beraz, eta berarekin hitz egin nuen. Beti bezala, Janek batere baldintzarik jarri gabe lagundu zidan, bultzatu ere egin ninduen aurrera jo nezan. Ni kanpoan nintzen bitartean bera Columbus-era (Ohio) joango zela esan zidan, gure semearekin eta lobekin egoteko. Beraz, Euskal Herrian nintzen azaro erdialdera, abenduko lehenengo astea bitarte bertan izateko asmotan.

Jakina, nire lana oso zen kontuzkoa, eta arreta eta sekretua eskatzen zituen. Nola-halako estalgarrien bat behar nuen. Eta, arazoan orduko egoerak estalgarri perfektua eman zidan. Ibarretxe Plana izenekoak liskar handia altxatu zuen, eguneroko euskal gai guztien gainetik zegoen. Nire solaskideei gai hura aztertzen ari nintzela esaten banien, artikulua bat idazteko asmotan nintzela, sinesgarri gertatuko

“**H**DC-k gai humanitario nagusien inguruan beste ezertan ez zuen bitartekaritza egingo: ETako kide preso eta atzerriratuak –artean ekintzaile zirenak, barne–, atzera bergizarteratzeko terminoak, biolentziaren biktimenzako ordainak... baina, horretaz jardunagatik ere, arduratsu eta inpartzial jokatu zuen borroka politikoaren konponbideari zegokionean”

zitzaien. Erraza izango zitzaidan Plana eztabaidatzen hasi eta gatazka negoziazio bidez konpontzeko aukeretara igarotzea. Baina ni ez nengoen ezer egiteko prest lehenengo Ibarretxe lehendakariari kontu hura jakinarazi gabe. Bera, azken finean, euskal gobernuaren buruzagi hautetsia zen eta, guk genekienez, beste ekimen bat edo bi ere dantzan zebiltzan eta gure parte-hartzeak (ongietorria gabe) galbidean jar zitzakeen. Garai hartan, nire biografo Miel A. Elustondok eta biok nola-halako akordio informal bat egina genuen; horren arabera, bera Renon zen aldiro nire gonbidatuentzako etxean egotekoa zen. Ni Euskal Herrian nintzenean, berriz, berak Gasteizen zuen apartamentuan egoteko aukera nuen. Huraxe izan nuen nire *pied-a-terre* ondoko hiru asteetan.

Genevatik Euskal Herri ra: Ibarretxe

Nire lagun zahar Iñaki Agirreren bitartez (Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia), Ibarretxe lehendakariarekin bilera egiteko aukera izan nuen Gasteiza heldu eta hurrengo goizean. Nire egitekoaren berri eman nien, Zentroaren aholkulari soldatapekoa nintzela ere esanez, eta ekimenari buruzko iritzia eskatu nien. Ibarretxe lehendakariak Madrilekin zituen harreman eskasak azpimarratu zituen,



2003ko urrian Ibarretxe lehendakariak Estatutu Berriaren Proiektua Juan Maria Atutxa Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren eskuetan utzi zuen.

erreferendumarekin aurrera egiteko erabakia –horrek zekarkion arrisku pertsonala gorabehera–, eta ETArekin zuzenean ez negoziatzeko asmoa. Metafora bat erabili zuen: egitekoa, hegazkina 700 metroko pistan lurreratzea zen; berak 550 metroren ardua zuen, hau da, aurreko hauteskundeetan abertzaletasun moderatuek emandako 550.000 botoei buruz ari zen. Gainerako 160 metroen ardua Arnaldo Otegi zuen, haren Batasuna alderdiak bildu zituen 160.000 botoek, alegia. Xehetasunok zabalduz ez dut uste inoren konfiantzari huts egiten ari naizenik, gerora Ibarretxe lehendakariak berak jendaurrean esan zituenez gero.

Egia esan, eszeptiko xamarra nintzen ETari buruz adierazitako jarrerari zegokionean. Uste nuen nolabaiteko harreman bidea izan behar zela euskal gobernuaren eta haren artean, Batasuna bidez besterik ez bazen ere. Bestalde, litekeena zen, aurreko zenbait gertaerak erakutsi zutenez. 1999an, Lizarra akordioaren ondoren etorri zen alde bakarrek menia hautsi zuen ETak. Akordioan, euskal alderdi politiko abertzaleek, espainiar alderdi politiko txiki batek eta sindikatuak parte hartu zuten. Hala ere, ez Aznarren Alderdi Popularrak, edo haren oposizioak, Espainiako Alderdi Sozialistak. Akordioaren zumitzez batera lan egitera deitzen zuten, euskal gatazka inola konpontzekotan. Biolentziara itzultzea iragarri zuenean, ETak bereziki gaitzetsi zuen EAJ, balizko independentziaren alde modu aktiboan lan egiteko obligazioa ez zuela bete eta porrota hari egotziz.

EAJren lehenengo erreakzioa halako akordio baten existentzia ukatzea izan zen. Alabaina, ETak haren zirriborroa argitaratu zuenean, EAJren aski

erantzun berantetsiak zioen ez zirela akordioa izenpetzera iritsi. Beraz, euskal abertzaletasunaren ibilbide luzean hura ez zen, ez zenez, EAJren sasoirik onena. Hitz bitan, EAJk menderatzen zuen gobernuak muturreko ezker abertzalearekin zituen harremanak ez ziren Madrilekin zituenak baino askoz hobeak. Gainera, ETArekin bestelako berrikerarik izanez gero, haiek argitaratzeko arriskua zegoen, noiz eta hauteskunde giro kritikoa, hots, Aznar euskal erakunde guztiak gutxi-asko ETaren konplize zirela akusatzen ari zenean. Aurreko gertakariok frogatu zidaten Ibarretxe lehendakaria egia esaten ari zitzaidala.

Ibarretxe lehendakariak eta Agirrek bilkura hartan ziurtatu zidatenez, egoera ez aurrera ez atzerakoa zen eta, beraz, nazioarteko ekimen berri bat ongi etorria izango zen eta, gainera, ez zen bestelako ekimen batekin lehian egongo, ez zuen bestelako ahaleginik eragotziko. Halabeharrez, Ibarretxe lehendakaria eta Agirre Genevan izatekoak ziren handik hamabost egunera, euskal enpresaburuen ordezkaritza batekin batera. Prest ziren Martin eta Andrewrekin orduan batzartzeko eta, beraz, bilera antolatzea onartu nuen.

Estalgarri ezi n egoki agoa: Ibarretxe Plana

Jarraian, elkarrizketa agenda estua osatu nuen, bizitzako bidezidorretan ezagutu nituen unibertsitateko irakasle, profesional, idazle, enpresaburu eta besterik gabe, adiskideekin. Jakina, beraiek badakite nor eta nor diren eta haien anonimotasun eta isilpekotasuna errespetatuko direla espero dut. Gauzak horre-

la, ustekabekorik izatekotan zera izan zen, denek, aho batez, *impasse* hartatik irteteko nolabaiteko gogoia adierazi zidatela. Aldi berean, ordea, optimismo handirik ere ez zuten agertzen, aukera hari zegokionean. Batzuen ustez, egin beharreko bidea erakutsiko zuen Ibarretxe Planak, ondo bide malkartsua izanagatik ere. Beste batzuen iritziz, aldiz, espainiar nazionalistak kontra jartzeko balioko zuen, besterik gabe, eta zigor neurri gehiago ere ekarriko zituen. Bik ahoan bilorik gabe esan zidaten planak aurrera egiten bazuen, nora edo nora Espainiara joatea pentsatuko zutela. Muturreko ezker abertzalean nituen ezagun guztiak jakin minez zeuden, eta haietariko batzuek Ibarretxeren ausardia txalotu zuten. Akordio negoziatuari ateak itxi zizkion pertsona bakarra PPKo hautetsi bat izan zen. Haren ustez, ETA –eta euskal abertzaletasuna, oro har– kinka larrian zegoen, eta ez zegoen akordio bila ibili beharrik. Haren arabera, laster egitekoak ziren hauteskondeek gehiengo absolutua emango zioten PPri Espainiako kongresuan eta, ziurrenera, baita EAEn ere.

Unibertitate irakasleen artean nuen kontaktuetako batek, euskal politika gaitan aditu ezagunak, esan zidan bai berari eta bai beste askori ere Ibarretxe Plana izenekoaren formulazioari ekarpena egiteko eskatu zietela. Hortaz, ageriko zenez, azken emaitza ongi pentsatua eta kolektiboa zen, eta ez bat-batekoa eta idiosinkrasikoa, Planari kritika egiten zioten batzuek esan zuten moduan. Ohar horrek bi lehendakari ohiekin harremanetan sartzea eraman ninduen, hau da, Jose Antonio Ardanza eta Carlos Garaikoetxearekin.

Euskaltelen bulegoan bildu nintzen Ardanza lehendakariarekin, berak zuzentzen duen telekomunikazio agentzian. Beste behin diot, ez zait iruditzen isilpekorik haizatzen ari naizenik, berak nik elkarrizketa grabatzea eta ondoren argitaratzea espero baitzuen. Ardanzak, Plana sustengatu ez ezik, esan zidan PPK Ajuria Eneko mahaia utzi zue-nean ohartarazi zuela Aznar, gisa hartako irteera laguntzen ari zela, alegia. Lehendakari izan zen garaian euskal gatazkari irtenbide bila aldiro-aldiro egin zituzten bilerei buruz ari zen. Hastapenean, protagonista politiko guztiek (PP, EAJ, EA, PSOE), ETak eta ezker abertzaleak izan ezik, hartu zuten parte. PPK erretiratzea erabaki zuenean hondoa jo zuen Ardanzaren ekimenak.

Garaikoetxea lehendakaria, bestalde, oporretan zen, Andaluzian, eta telefonoz hitz egin nuen berarekin. Planari buruz jendaurrean esana zuena azaldu zidan. Oro har, haren aldekoa zen, nahiz eta

uste zuen zenbait puntutan gogorragoa izan behar zuela. Ondoren, atzera egin behar izan nuen, bera hasi zitzaidalako galdezka Ibarretxe Planari buruz. Alegia, zer iritzi nion, zer iradokizun nituen... Orduantxe jabetu nintzen ez nuela behar beste landu nire estalgarri hura. Zalantzarik gabe, huts egingo nion Garaikoetxeari nire bat-bateko erantzun axial haiekin.

Abendu hasieran, etxera abiatu nintzen, Genevatik barrena, Zentroarekin biltzeko eta Ibarretxe lehendakariaren eta Agirre idazkariaren bilkura zehazteko. Itxura guztien arabera, itzultzaile lanak egitekoa nintzen, nahiz eta Agirrek erraz egiten duen ingelesez. Gero jabetu nintzen, Ibarretxe lehendakariak berak ere nahiko itxura antzean zekien ingelesez, eta punturen batean edo bestean baino ez zuen argibiderik behar izan.

Bilkura hartan, Ibarretxe lehendakariak aurretik esan zidana berretsi zuen; besteak beste, ezker abertzalearen lana zela ETArekin konpontzea.

“**O**so impresionatuta nengoen Andrew, Martin eta, batez ere, Zentroarekin. Iritsi nintzen egunean israeldar eta palestinar mordoxka zeuden bilkura gelan, Genevako Ituna izenez ezagutuko zenari azken ukituak ematen”

Espainiako gobernuaren ordezkariak Bruselan pizten ari ziren giroaren kontra, berriz, euskal gaiari buruzko azalpen zehatza prestatzea erabaki genuen, ingelesez, Europar Batasuneko parlamentari guztiei banatzeko. Izan ere, espainiar ordezkariak egoskor ari ziren euskal auzia Europako parlamentuan desitxuratzen, nazioarteko begiradatik isolatu eta Espainia barneko arazotzat aurkezteko asmotan; bestalde, artean onartu gabeko Europako Konstituzioa berridatzi beharra aldarrikatzen ari ziren, “herri”, “nazio” (hots, estatu gabeko nazio), “eskualde” (eskoziarren eta Alemaniako landerren

moduko entitateen gogoz kontra) eta gisako erreferentzia guztiak ezabatzeko ahaleginean. Gure aldetik azalpen zehatza prestatzeko ados egonagatik ere, ekimena ez zen gauzatzera heldu, ahaleginak huts egin zuen ondorengo gertakariak ustekabeko traiektoria hartzera behartu gintuzten-eta.

Martin, Andrew eta hirurok estrategia erabakitze-ko bildu ginen hurrengo egunean. Ordurako, konbentzituta nengoen ez ziola ardura zenbateraino zail edo bideraezinak izan negoziazioak, baina haietan inplementatzen zenak aski sostengu bildu beharko zuela euskal herritarren espektro zabalaren artean. Agerikoa zen, era berean, benetako erronka zera zela, bata bestearen etsai amorratuak, nola ziren ETA eta Aznarren gobernu espainola, negoziazio mahaira ekartzea. Horri dagokionez, Martinek galdetu zuen ea Juan Carlos erregeak batere eraginik ote zuen Aznar presidentearen gainean. Ez nekien, baina bazitekeela iritzi nion. Martinek, orduan, esan zuen Zentroak bere sarea erabil zeza-keela monarka espainolarengan eragiteko Aznarrekin hitz egin zezan, haren administrazioak negoziazioaren kontrako jarrera suhar hura arintze aldera. Baina, jakina, hurrengo buruko mina ETA zen. Parte hartzeko prest ez bazegoen –Carter Zentroaren kasuan gertatu zen bezala–, apustu guztiak alferrikakoak izango ziren. Jarraian, Martinek kontatu zuen hilabete batzuk lehenago ETAk Europako gobernu bati eskatu ziola bere burua bitartekaritza egiteko eskaintzea, eta egin ere zuela delako gobernuak, baina Madrilak laster batean erantzun ziola ezetz. Negoziatzaile gutxietsi hark Martini aipatu zion HDCK gogoan hartu beharko zuela parte hartzea, eta horrelaxe hasi zen istorio hau.

ETArekin kontaktatzea

Kontakta ote nezake ETA? Ez nuen hori egiteko bide zuzenik baina pentsatu nuen egin nezakeela ezker abertzaleko jendearen artean nituen zenbait lagunen bidez. Aldi berean, kezka azaldu nuen, zer gertatuko ote zitzaidan horretan ari nintzela Espainiako agintariak harrapatzen baninduten. ETArekin kontaktatzea legez kanpokoa zen Espainiako lege antiterroristaren arabera eta, hein berean, ilegala AEBetan ere. Txantxa bat zebilkidan joan-etorrian, nire burua ziegako hotzean ikusita. Zirkunstantzia zehaztu gabeko batzuen pean Zentroa niri laguntzeko moduan izango zen, baina horrek jokozelaian zenbat balioko zuen ez zegoen jakiterik. Hitz bitan, neure kontura ibiliko nintzen, gehienbat.

Ordurako, saltsan sartuegi nengoen atzera egiten

pentsatzen hasteko ere. Hortaz, gai serioago bat aztertzeari ekin genion, esan nahi baita nola jokatu gure lanaren funtsari zegokionean, eta ez mekanismoari. ETArekin harremanetan sartuko nintzela joz, zein izango zen komunikazioaren ardatza? Aurretik ETArekin egin ziren negoziazio erreka jotako guttien gainean nuen informazioa azaldu nuen. Saio guztiak ere Euskal Herriaren etorkizun politikoa izan zuten abiapuntu. Halako puntu batera heldurik, ETAk kontzesio politikoa eskatu izan zituen, Espainiako gobernuak besterik gabe onartezintzat jo izan zituenak. Kito. Elkarriketaren amaiera. Uste nuen begiak argiari ireki behar genizkiola, HDCK gai humanitario nagusien inguruan beste ezertan ez zuen bitartekaritza egingo: ETako kide preso eta atzerriratuak –arteak ekintzaile zirenak, barne–, atzera bergizarteratzeko terminoak, biolentziaren biktimentzako ordainak... baina, horretaz jardunagatik ere, arduratsu eta inpartzial jokatu zuen borroka politikoa konponbideari zegokionean. Hala ere, Zentroak defendatu egingo zuen ETaren ahaldun Batasunak –edo etorkizuneko ahaldunen bat– bere agenda politikoa lantzen jarraitzeko zuen eskubidea, indarrean zegoen prozesu demokratikoa markoaren barruan betiere. Halaber, Espainiako gobernuak negoziazioei ekitekotan, kontuan hartu behar zen ETAk betiko eta baldintzarik gabe egin beharko ziola uko biolentziari. PPren baitako moderatuek interesa izan lezaketen arren, litekeena zen gogorrenek ETAk iraganean izan zuen jokabidea –lehenengo alde bakarreko menia aldarrikatu, ondoren hura hautsi–, inolako bake prozesua hondoratzeko aitzakiatzat erabiltzea.

Martinek eta Andrewk itzulgingururik gabe onartu zuten ikusmolde hau. Renorako bidaia txartela aldatu zidaten, atzera Euskal Herrira itzul nendin.

“Kezka azaldu nuen, zer gertatuko ote zitzaidan horretan ari nintzela Espainiako agintariak harrapatzen baninduten. ETArekin kontaktatzea legez kanpokoa zen Espainiako lege antiterroristaren arabera eta, hein berean, ilegala AEBetan ere”



JOSEBA ELOSEGI

“Ordu batzuk geroago dei bat jaso nuen. Biharamun goizean ETaren balizko mezularia nire gelan izango nuen”

“ETaren erantzunak harri eta belarri utzi zuen erakundearen mezularia. Interesa zuten, baina inork ez zuen hartuko HDCren eskaintza unibertsitateko irakasle baten eskutik. ETak eskutitza jaso nahi zuen Martinengandik, xehetasunak zehaztuz eta Zentroaren egitekoa azpimarratuz. Martini hots egin nion. Baietz, eta idatzi ez ezik, eskutitza berak ekarriko zuela esan zidan”

Otegiarekin kontaktatzeko itxaropena nuen, nahiz eta aurretik behin ere ez nintzen harekin egona. Beraz, puntu hartan, ezker abertzalean aski figura ezaguna zen lagunari hots egin nion telefonoz, eta Durango-Vitoria/Gasteiz errepideko herri bateko tabernan zurrut bat egingo ote genuen galdetu nion. Ohiko agurrak eta gero, autoan itzuli bat egingo ote genuen galdetu nion. Tarte hartan azaldu nizkion nire lan eta beharrak.

Laguntzeko prest zegoen, baina Otegiarengana hurbiltzeko asmoa burutik kendu zidan. Batasunako liderra zeharo lanpetua zegoen, zaila zen hura geraraztea. Batetik hori. Bestetik, ziurrenera, estu zelatua zeukaten. Orduan, nire adiskideak pertsona jakin bat proposatu zidan, ETako kide ez izanagatik ere, erakundearekin harremanetan jartzeko gai izango zena. Loiuko aireportuaren ondoan, Zamudioko parke teknologikoan dagoen hotel

batean ostatatu nintzen. Han hartu nuen gela, bertako arduradunei ezezaguna nintzaielako eta gau jakin hartan bisitarien erdiak atzerritarrak izatekoak zirelako. Ez nuen, beraz, han inoren arreta bereganatuko. Gelara joan eta berrien zain egotekoa nintzen. Euskal Herrian ezagutzen nituen gainerako kontaktu guztien ustetan etxera itzulia nintzen, Renora.

Ordu batzuk geroago, dei bat jaso nuen. Biharamun goizean ETaren balizko mezularia nire gelan izango nuela esan zidaten. Itxaronaldia etengabea gertatu zitzaidan, ezezaguna espero bainuen, aukeran polizia edo zer edo zer okerragoa ere izan zitekeena. Nire kezka barroko haren oinarria zen ETA ez dela erakunde monolitikoa eta, bai, aldiz, kosta lain kosta biolentzia kanpainari segitzeko prest zeuden kide gogorrak zituena, eta nire moduko mezulari baten kontra ere haserre har zezaketela.



EFE

2004ko martxoaren 11n Madrilen izandako atentatuaren irudi bat.

Atean jo zuten kax-kax hura nire kontaktuarena zen, gizon serio bat, berehala euskal-espainiar politikako gaiiei buruzko elkarrizketan lotu zitzaidana. Zentroaren jarreraren berri eman nionean, eszeptikogoa zen. Zergatik ekin behar ote zion ETAk errenditzearen pareko bide zen negoziazioari, hots, bere historiari eta urte askoan eutsi zien helburuei uko egitea esan nahi zuen prozesuari? Ados zegoen, hala ere, proposamen hura zegokionari helarazteko, eta biharamunean bertan erantzungo zidala agindu zidan.

ETAren erantzunak harri eta belarri utzi zuen. Interesa zuten, baina inork ez zuen hartuko HDCren eskaintza unibertsitateko irakasle baten eskutik. ETAk eskutitza jaso nahi zuen Martinengandik, xehetasunak zehaztuz eta Zentroaren egitekoa azpimarratuz. Martini hots egin nion. Baietz, eta idatzi ez ezik, eskutitza berak ekarriko zuela esan zidan. Renora hegaldia nuen biharamunean eta kezkatan nengoen Janen osasun egoera zela-eta. Martinek hegazkina hartzeko esan zidan. Nire hotel berean gela hartu eta Genevatik etorri zen, mezulariarekin biltzeko asmoz.

“Guk [Renoko euskal Zentroan] ez genekien ETA errugabe zenik, baina atentatuen modus operandia erakundearenarekin bat zetorren hein handian... Gure mezua kontuz ibiltzekoa izan zen, goizegi zela ondoriorik ateratzeko. Eta nazioarteko prentsak jarrera huraxe hartu zuela esango nuke”

Handik laster, Martinek esan zidan ETAren erantzuna jaso zutela eta haren bi mezulariarekin bilera egin zutela Genevan. Delako eskutitz haren kopia eskatu nion, baina esan zidaten seguritate arazoak tarteko, nahiago zutela Genevara joaten nintzen hurrengo aldian erakutsi. Uste nuen epe motzean ez zela ezer aldatuko, Espainia hauteskunde kanpianan murgildu zenez gero, PPK irabazteko itxura guztiarekin. Zalantza bakarra zen gehiengo absolutua irabaziko ote zuen. Ez zirudien benetako bake ekimenari helduko zionik harik eta hautesleek botoa eman eta PPrene garaipenaren egiazko neurria jakin arte. Puntu hartan, hurrengo erronka izango zen nola hurbildu Espainiako Gobernura. Euskal Herriko eta Espainiako prentsa Renotik segitzeko prestatu nintzen, martxoko hauteskunderen zain.

Martxoaren 11ko atentatua Madril en

Martxoaren 11n Madril en gertatu zen atentatua –eta martxoaren 14ko hauteskunde egunaren aurretik–, ondoko hiru egunetako zaparrada politikoa, alde aurretik iragarri gabeko tximista gertatu zen. Azna-

rrren administrazioak, harritu eta izututa, ETari leporatu zion erasoan egiletza. Euskal gobernuak ere ontzat eman zuen Espainiako seguritate indarren baieztapena, zinetan hartu zuen, eta Ibarretxe lehendakariak agerraldia egin zuen ETA itzulingerurik gabe gaitzetsiz. Agerraldi hark, hain zuzen, euskal gobernuaren eta ETaren artean komunikazio biderik ez zegoela erakutsi zuen. Hastapenean, Otegiren erabateko ukoa beste ahotsik ez zen entzun erakunde armatuak eztanda haietan esku hartzerik ez zuela izan esanez. Alderdi Popularraren kanpaina antieuskaldunaren ondorioz, eztanda Espainiak Iraken okupazioan (onarpenik gabe) jokatu zuen rolaren ordaina izan zela zioen perspektibaren kontra, PPK hesi guztiak altxatu zituen Madrilgo sarraskia ETak egin zuelako sinesteari eusteko; boto guztiak bildu arte, bederen. Munduan bateko eta besteko espainiar enbaxaderek ere bertsio hori zabaldu eta Europako Batasunak eta Nazio Batuek ETA berehala gaitzetsi zezaten berealdiko saiakerak egin zituzten.

Renon, Euskal Ikasketen Zentroan ere sentitu genuen inpaktua. Nazioarteko berri agentzia askok hots egin izan digute “euskal berriak” diren aldiro. Madrilgoari dagokionez, asko baino gehiago izan ziren gure iritziak biltzeko eta elkarrizketak egiteko eskariak, eta Zentroko zuzendari Joseba Zulaikak eta biok lana banatu behar izan genuen. Guk ez genekien, jakina, ETA errugabe zenik, baina atentatuaren modus operandia erakundearekin bat zetorren hein handian... Gure mezua kontuz ibiltzekoa izan zen, goizegi zela ondorioz ateratzeko. Eta nazioarteko prentsak jarrera huraxe hartu zuela esango nuke.

Laster ikusi zenez, gero eta fikzio huts nabarmenago zenari eusten saiatu zen PP hauteskundeak igaro artean. Ordu gutxian, gehiengo absolutua izateko aukeraren jabe eta garaile ziurra izatetik Espainiako oposizioko alderdi nagusia izatera igaro zen.

Genevako zentroari eman nion aholkua zera izan zen, gutxienez hilabete zain egoteko, hautatu berri zen Zapateroren gobernuarekin hizketan hasi baino lehen. Jakina, epea luzatu egingo zen, ustekabeko administrazio sozialista bat osatu beharzagatik. Bestalde, AEBetako gobernuaren presio handiagoa etorri zen orduan, presidente berriaren lehen egintzetako bat Espainiar armada Iraketik erretiratzeko egindako promesa berrestua izan zenean.

Eta euskal auziari heltzeko berehalakoan askatasun handirik ez zela izango irudi bazuen ere, hasierako hitzaldietako batean Zapatero presidentea ETArekin hitz egiteko prest zegoela adierazi zuen,

hark lehenago biolentziari uko egiten bazion. PPK gogor kritikatu zuen jarrera hura, eta sozialistekin sinatutako Itun Antiterrorista hautsita zegoela aldarrikatu zuen.

“Andrewk esan zidan euskal gatazkan urrunago ez joatea erabaki zutela! (...) Haren iritziak, Espainiako gertakari berriak kontuan harturik, ETak eta gobernu berriak etorkizunean izango zuten harremana beren kabuz erabaki ezinik ez zuten izan behar”

Beraz, bazirudien gure ekimenaren aukerak zabaltzen ari zirela eta Genevara hots egin nuen. Apirila zen ordurako eta erakundearen bi mezularien erantzuna jaso zuten Genevan. Eskutitzaren kopia eskatu nuen arren, esan zidaten oso gauza kontuzkoa zela, bidaltzen ibiltzeko. Aztertuko nuela Zentrora egiten nuen hurrengo bisitan.

HDCren i s i l a l d i t i k ETaren su-etenera

Pare bat astean ez nuen berririk izan eta atzera hots egitea erabaki nuen. Orduantxe esan zidan Andrewk euskal gatazkan urrunago ez joatea erabaki zutela! Haren azalpena aski onargarria zen, alegia, HDCK beteegi zuela platera –Palestina, Nepal, Aceh, Darfur...–, eta neurritz gain barreiatzen ari zela hala diru nola giza baliabideak. Gainera, Andrewren iritziak, Espainiako gertakari berriak kontuan harturik, ETak eta gobernu berriak etorkizunean izango zuten harremana beren kabuz erabaki ezinik ez zuten izan behar.

Ni, jakina, harriturik eta nahigabeturik nengoen. Egia, Andrewren arrazoiak onartu banituen ere, iruditzen zitzaidan arrisku pertsonal handia hartu nuela, halabeharrekoea ez aipatzearen. Nik ez ezik, nire adiskide batek ere bai, neure eskariz. Are, Euskal Herrira egin behar nituen bidaietan ezingo nuen harekin harremanetan jarri, gure eraginkortasun eza

azaldu beharko nion-eta. Hitz bitan, bazirudien zorioneko ezereza lortzeko egin genuela dena.

Aldiro-alldiro, Zapatero presidenteak behin eta berriz adierazi zuen ETArekin negoziatzeko aukera indarrean zegoela, betiere aurretik erakundeak biolentziari uko egiten bazion. Momentu batean Zentroarekin kontaktatu nuen, neure burua Euskal Herrira itzultzeko eskainiz, haien aholkulari lanetan baina soldatarik gabe, horrek haien interesa pizteko balio bazuen, behintzat. Andrewk zalantza egin zuen hogeita lau orduz, baina ondoren jakinarazi zidan Zentroaren erabakia –tar-tean ez sartzeko, alegia–, atzera bota ezina zela. Ordurako, euskal auzia ez zen haien agendan ageri.

2006ko martxoan, ETAk erresistentzia armatu bortitzaren amaiera aldarrikatu zuen, baldintzarik gabe eta behin betiko. Zapaterok zein Ibarretxek ongi-egorria egin zioten aldarrikapenari, eta biek ere euskal gaia bakez eta alderdi guztien parte hartzearen bidez konpontzeko itxaropena azaldu zuten. Maiatzean, Zapatero presidenteak Kongresura jo zuen, ETArekin negoziatzen hasteko onarpen bila. PPko sektore gogor eta eszeptikoak –eta harrituak–, salbu, alderdi politikoeak eta Espainiako eta Euskal Herriko herritar gehienek –maila ezberdinetan–, ongi-egorria egin zioten ETArekin aldarrikapenari. Ni gozatzen nengoen, hedabideek gertaeren bilakaeraz esaten zutenaren bidez jaso nuen informazioa, interesa zuen begirale baten moduan.

ARTXIBOA



2006ko martxoan ETAk su-eten iraunkorra eman zuen.

“Nahigabea adierazi zidan ni kanpoan utzi behar izan ninduelako, baina, berez, nigandik espero zuten guztia eman niela. ETArekin harremanetan jartzeko bidea ireki niela, eta negoziazio markoa eskaini. Ez zirela handik aldentu aipatu zuen, batzuetan prozesua eteteko zorian zegoela iruditu zitzairen arren. ETArekin ordezkariak behin betiko eta baldintzarik gabeko su-etena onartu zuten Martinen etxean zerbait edanez, Genevan”

2006ko apirilean, harriturik jaso nuen email bat, Zentroaren jendearekiko harremanetarako ardura-dunaren izenean. Urtea baino gehiago joana zen haien berririk gabe. Atxikita, Henri Dunant Zentroari buruzko artikulua luze bat, *El País* egunkariak argitaratua. Martinek artikuluari buruz nuen iritzia jakin nahi zuela zioen ohar bitxia zekarren mezuak. Artikulu hura HDCCren guztiz aldekoa zen, sakon-ean, eta hain zehatza non barneko kolaborazio formalaren zantzuak ageri zituen. Zentroaren filosofia zehazten zuen, modus operandia, eta iragan-ean eta presentean zituen proiektu mordoxka. Ez zegoen Espainiaren ez euskaldunen aipurik. Nire erantzuna ere jaso nuen mezua bezain enigmatikoa izan zen eta, esan nion, helburuari begira, ongi iruditzen zitzaidala eta Martinek berak idatzia izan zitekeela. Mezu truke hura harrigarri xamarra iruditu zitzaidan, gure historia kontuan harturik, baina hainbestean baztertu egin nuen.

Maiatzean, Euskal Herrira joan nintzen, Iruñean eta Donostian hitzaldiak egitera. Momentu batean, bakarrik izan nintzen politika irakasle batekin, nire adiskide min eta solaskideetako bat Ibarretxe Pla-

nari buruzko artikulua idazten ari nintzela esaten jardun nuen garaian. ETA aldarrikapen hura egitera eraman zuen prozesuan Carter Zentroa sartuta egon ote zen galdetu zidan halako batean. “Nik dakidala ez”, esan nion. Haren erantzuna, nola-halako nazio-arteko bitartekaritza izan zela uste zuela. “Oslo eta Geneva izan zitezkeen”, esan zuen. Zerk pentsarazten zion hori galdetu nionean, erantzun zidan marxoko iragarpena egin orduko, *El País*-eko lerro haietan horri buruzko espekulazioak ageri zirela.

Renora itzuli nintzenez Martini hots egin eta esan nion jakin behar zuela zenbait euskal giro benetan hartzeko modukotan haizatu zenez, ETArekin aldarrikapena erraztu zuenetakoa izan zitezkeen Geneva. Isilune labur baten ondoren esan zidan zintzo jokatu nahi zuela nirekin: “Behin ere ez ginen geratu, Bill”, ohartarazi zidan. Aurrera jo zuten, esanez Zentroak bilerak antolatu zituela bai Genevan eta bai Oslon, bi urteko epe zail bihurrian,

eta prozesua artean abian zegoela. Nahigabea adierazi zidan ni kanpoan utzi behar izan ninduelako, baina, berez, nigandik espero zuten guztia eman niela. ETArekin harremanetan jartzeko bidea ireki niela, eta negoziazio markoa eskaini. Ez zirela handik aldendu aipatu zuen, batzuetan prozesua eteteko zorian zegoela iruditu zitzaizen arren. ETArekin ordezkariek behin betiko eta baldintzarik gabeko su-etena onartu zuten Martinen etxean zerbait edanez, Genevan. Martinek esan zidan dena amaierara iritsia zenez ni Genevara joatea nahi zuela, istorioa osorik entzun eta ospatzeko.

Telefonoa eskegi ondoren ezin egon nintekeen euforikoago. Ordutegi aldearengatik, egunsentia zen Renon, eta pentsamendu eta emozioak sailkatzen ari nintzen telefonoak jo zuenean. Martin zen, nire email helbidearen eske. Eskerrak eman nahi zizkidan idatziz nire laguntzarengatik, erabakigarria izan zela behin eta berriz azpimarratuz. Nahigabea agertu

“**E**gigurenek eta Urrutikoetxeak Eusko Legebiltzarrean kointziditu zuten eta, beraz, ezagunak ziren aspaldi. Gainera, biak ere Genevako negoziazioetan izateak azpimarratu egin zuen alde bakoitzak bake prozesuari ematen zion garrantzia”



DANI BLANCO



DANI BLANCO



JOSEBA OLALDE

2001ean hasi ziren PSE-EEko Jesus Egiguren (ezkerrean) eta Batasuneko Arnaldo Otegiren (goian) elkarrizketak. Genevako elkarrizketetan Egiguren Espainiako Gobernuaren izenean aritu ei zen eta Josu Urrutikoetxea (eskuinean) ETArenean.

zidan beste behin, ni kanpoan utzi behar izan ninduelako, baina jakin nezala momentu guztietan beren pentsamendu eta egintzetan egon nintzela.

Epi Ilogoa

Ondoren datorrena bigarren eskuko iturrietatik –Euskal Herriko eta Espainiako prentsan irakurria–, eta gertaeren bilakaerari buruz nik neuk egindako espekulazioetatik dator. HDC-k bideraturik, ETaren eta Zapateroren gobernuaren arteko negoziazio formalen zikloari buruz ari naiz. Suitzan hasi ziren 2005eko ekainaren 21ean, Genevan eta Oslon segitu zuten ondorengo udazkenean, eta 2007ko udan amaitu ziren.

Gaur egun gauza jakina da Espainiaren ordezkaria Jesus Egiguren izan zela, Eusko Legebiltzarreko PSOEko kide beteranoa, eta ETaren bozemailea, ostera, Jose Antonio Urrutikoetxea Bengoetxea *Josu Ternera*, Batasuneko legebiltzarkide ohia eta iheslaria. Egiguren, nahiz eta sozialista sinestuna eta euskal abertzaletasun instituzionalizatuarekin kritikoa

izan, ez zen antieuskalduna, ezta hurrik eman ere. Aznarren gobernuaren garaian bertan ere, eta Patxi Lopezen onespenez, hainbat bilera izan zituen Batasuneko buru Arnaldo Otegiarekin biolentzia egoera konpondu eta Euskal Herriaren etorkizun politikoa eztabaidatzeko asmotan. *Ternera*-ri leporatzen ziotenez, Luis Carrero Blancoren –Francok behatzez hautatu zuen ordezkoa–, hilketan nahasirik egon zen, bai eta Bartzelonako Hipercor supermerkatuaren ezteandan ere (1987ko uztailak 19), non 21 lagun hil baitziren. Zenbaiten iritziz ETako buruzagi zen; gainerakoan, iturri guztiak ados zeuden, esanez erakundeko zuzendaritzako kide nabarmena zela, gutxienera.

Bi gizonok Eusko Legebiltzarrean kointziditu zuten eta, beraz, ezagunak ziren aspaldi. Gainera, biak ere Genevako negoziazioetan izateak azpimarratu egin zuen alde bakoitzak bake prozesuari ematen zion garrantzia. Genevan lehenengo bilera-koan elkar ikusi zutenean, Urrutikoetxeak Egigurenen lau liburuetakoko bat zeukan aldean, *Los últimos*



españoles sin patria (y sin libertad). Escritos sobre un problema que no tiene solución pero sí arreglo, non egileak dioen euskaldunen independentzia asmoa irreal dela, baina maniobratzeko nahiko espazio dagoela bi aldeek ere onartuko duten akordioa lortzeko. Urrutikoetxeak liburua eskuan jaso eta Egigureni esan zion han adierazi zuena benetan sinesten baldin bazuen, orduan optimista izateko tarte zegoela, biek beren helburuei ekiterakoan.

HDCK behin eta berriz esan zuenez, Genevako eztabaidak gai humanitarioak, besterik ez, negoziatzen mugatuko ziren, nahiz eta bistakoa izan handik kanpo bestelako prozesu bat gauzatu beharko zela, beste mahai bat, non gatazkaren sustraietan irauten zuten alderdi historiko eta politikoak aztertu baitziren. Are gehiago, 2004ko azaroan, jendaurreko agerraldi mugari batean, Otegik bi erraileko ikuspegia aurreikusi zuen desakordio nabarmenei aurre egin ahal izateko. Genevako prozesuaren baitan, laster erabaki zen alderdi politiko nagusietako ordezkariak hartuko zutela parte eztabaida politikoan. Loiolako mahaia izenekoa izango zen eta Batasuna, EAJ eta PSOEko ordezkariak izan ziren bertan. Loiolako bilkura eta eztabaida haietan oztopo gaindiezina gertatu zen Nafarroaren geroa, eta konpondu gabe irauten zuen 2006ko abenduaren 30ean, ETAk Madrileko Barajas aireportuan lehergailua eztandarazi zuenean. Bake negoziazioen aurrerapen mantsoak erakundearen baitan eragin zuen frustrazioaren erakusgarri indartsua, eta hilgarria, izan zen. Ekintzarako zuen ahalmena gogorarazteko modu garbia. Tragikoki, parkingean auto barruan bidaiariaren zain lotan zeutzan bi ekudortar hil ziren. Bake prozesuaren kontrako kritikak eragin zituen horrek, PPrenak batik bat, eta ETArekin behin ere ez zegoela fidatzerik zioen argumentuari haize emateko baliatu zuen. De facto, erakundeak hautsi egin zuen helburu politikoak lortzeko biolentzia baztertzeko egin zuen aldarrikapena. Arratsalde hartan Zapaterok amaitutzat eman zuen bake prozesua.

ETAk su-etena haustea beraren interesen kontraktat ikus litekeen arren, Espainiako Gobernuak ere haren tamainako “oker historikoa” egiteko gauza zela erakutsi zuen. 2004an boterea galdu baino lehen, PP hainbat neurri antiterrorista (i.e. antiETA) hartzen hasita zegoen bai Espainiako Kongresuan bai Espainiako sistema judizialean bertan ere. Botere legegileari dagokionez, 2002ko abuztuaren 26ko Alderdi Politikoen Legea onartu zen, non biolentzia terroristaren gaitzespen esplizitoa ezartzen baitzen

alderdi politiko bat lege onartua izateko. Euskal alderdi politiko guztiak neurriaren kontra agertu ziren, gehiegizkoa zelako batetik, eta euskal abertzaletasunaren ibilbidearen zilegitasuna bera potentzialki mehatxatzera zetorrelako. Hala eta guztiz ere, 2003ko martxoaren 18an, Espainiako Auzitegi Gorenak babestu egin zuen Alderdi Politikoen Legearen konstituzionaltasuna eta, era berean, Batasunari hauteskundeetan aurkezteko eskubidea ukatu, ETAREN biolentzia ez gaitzesteagatik. Garaian, Eusko Legebiltzarreko presidente Juan Maria Atutxak uko egin zion Batasunaren hautetsiak parlamentutik kanporatzeari. Atutxak zioenez, hori egiten bazuen ezbaian jarriko zituen, betiko, Eusko Jaurlaritzaren ahalmen legegilearen osotasun eta immunitatea. Ondorioz, bai Atutxak eta bai haren aholkulari estuenek ere akusazio kriminala jaso zuten.

Oro har, 1998an hasita, Baltasar Garzon epaileak –aski ospe handikoa, Txileko diktadore ohi Augusto Pinochet akusatzeagatik giza eskubideen kontrako gehiegikeriengatik akusatuta–, neurri judizialak hartzen hasi zen ETAREN usteko laguntza egituraren kontra. Horrek urrats drakoniarrak ekarri

“Behin ere ez ginen geratu, Bill”, ohartarazi zidan Martinek. Aurrera jo zuen, esanez Zentroak bilerak antolatu zituela bai Genevan eta bai Oslon, bi urteko epe zail bihurrian, eta prozesua artean abian zegoela (...) ETArekin harremanetan jartzeko bidea ireki niela, eta negoziazio markoa eskaini”

zituen, nola izan ziren Euskal Herriko bi egunkari-
ren itxiera –Egin (1998) eta Euskaldunon Egunkaria (2003)–, bai eta Egin Irratia ere (1998). Akusazio ez hain larriak –i.e. prozedura judizialak irekita–, jaso zituzten, besteak beste, Udalbiltzak –Espainia eta Frantziaren arteko mugaren bi aldeetako udalen bilkura–, eta AEK-k, euskarazko akademien elkarteak.



Jose Luis Rodriguez Zapaterok agintaldiaren hasieratik erakutsi zuen elkarrizketarako prestutasuna.

2004ko hauteskundeak irabazi ondoren, PSOE PPren agenda antiterrorista erreformatzeko egokieran zegoen, eta indarrean zegoen legedia zuhurtziaz aplika zezakeen. Haatik, Espainiako Gobernuak ez zuen asmatu ekimenik hartzen ezein frontetan, nahiz eta Genevako elkarrizketetan noiz edo noiz etorkizunean horixe egingo zuela agindu. Halaber, huts egin zuen, kontzesio sinboliko baliagarria izan zitekeen puntu batean, hau da ETako presoak Euskal Herrira hurbiltzen, garai hartan Espainiako Estatuko kartzeletan barreiatu baitzeuden PPren espetxe politikaren pean. Eta 2005eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde sasoa baino lehen, muturreko ezker abertzaleak bere burua politikoki berregin zuenean Aukera Guztiak mugimenduaren bidez, Zapateroren gobernuak ez zuen ezer egin Espainiako Auzitegi Gorenak hura Batasunaren oinordeko eta, Alderdi Politikoen Legearen arabera, ilegala zela esan zuenean. Horrela, azken momentuan, legezko aitortpena zuen (2002) baina ordu arte geldirik egondako alderdi politiko bat, Euskal Herrietako Alderdi Komunistak hautagaiak aurkeztu zituen, Batasunaren agendarekin bat eginda. Beranduegi zen mugimendua galarrizteko eta EHAK-k botoen %12.44 jaso zituen, bederatzi aulki Eusko Legebiltzarrean (hots, legez kanporatua izan baino lehen Batasunak lortutakoak baino bi gehiago). Bestalde, 2006ko amaieran, eta Genevako negoziazioetan asmo hori erakutsi arren, Espainiako Gobernuak ez zuen urrats zehatzik eginga Batasuna legeztatzeko.

Harrigarri bada ere, Barajaseko ezta bako prozesua zauritu zuen arren, ez zion heriotza eragin. Nahiz eta Zapaterok ETak su-etena hautsi zuela salatu, nahiz eta negoziazioak amaitu zirela esan, gatazkako aldean arteko kontaktu eta eztabaidak segitu egin zuten. Dena den, 2007ko maiatzaren udal hauteskundeetan, auzitegiak Eusko Abertzale Ekintza euskal alderdi abertzale historikoko (1930ean fundatua) hautagaien erdiak ez zirela hautagarri esan zuen, Batasunarekin edo muturreko



Mariano Rajoy PPko buruak hasieratik erakutsi zuen ETarekiko negoziazio prozesua oztotatzeko erabaki irmoa.

ezker abertzalean honek izan zituen alderdiekiko harremanak izan zituztela argudiatuz; nahiz eta lotura hori legezkoa izan zegokion garai hartan. “Errudun presuntzio” hau ez zen artxibatu hauteskunde eguna baino 24 ordu arte, apelazioa ezinezkoa eginez. Lehia berari dagokionez, ezgaitutakoek EAEko hautagaien 187.000 boto jaso zituzten, nahiz eta batere kargurik hartzen ez utzi, Iruñeko Udaleko bi aulkiak izan ezik.

2007ko ekainaren 5ean, ETak su-etenen amaiera iragarri zuen. Hiru egun geroago, Arnaldo Otegi, zinpean libre –terrorismoa goratzeagatik aurretik zigortuta baitzegoen–, berriz atxilotu eta kartzelatu zuten hamabost hilabetez. Uda erdialdean, Espainiako Gobernuak negoziazio guztiak etetea erabaki zuen eta horixe jakinarazi zion HDCri. 2007ko urriaren 4an, Garzon epailearen lege aginduz, Batasunako 23 buruzagi atxilotu eta kartzelatu zituen poliziak, ezkutuko bilkura politikotik irteten ari zirenean. Abenduaren lehenengoan, zorizko topaketa baten ondoren, isilpeko espainiar polizia bi eraitsi zituzten ETako operatiboek Cap Breton-en (Frantzia).

2008ko martxoko hauteskundeetan aurretik, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak erabaki zuen ez EHAK-k eta ez EAek betetzen zituztela Alderdi Politikoen legeak agintzen zituen baldintzak eta, beraz, ez zirela hautagarriak. Hauteskunde bezperan (martxoak 8), su-etenen ondoren jomugan jarritako lehenengo asinatzea burutu zuen ETak, hau da, PSOEko kide Isaias Carrascoren hilketa, Arrasa-

“Bake prozesuan, agerian geratu zen bi aldeek ere nahikoa introspektzio-lan eginga zutela eta barne desadostasunek eta politika aldaketek mugatzen zutela negoziatzaileen egitekoa”

teko zinegotzi ohia. Hauteskundeak minatzeko asmoan egin bazuen, porrot egin zuen, hura *causa célebre* bihurtu baitzen eta, berez, PSOEren perspektibak lagundu eta bultzatu baitzituen.

Hauteskundearen egunsentian, fokua lekuz aldatu zen, bertan behera utzitako bake prozesutik Espainiako eta Euskadiko lehendakarien asmoetara mudatu zen. Ibarretxe lehendakariak esan zuenez, konfiantza zuen aurrez aurreko elkarriketak konpromiso politikoa ekarriko zuela eta 2008ko udazkenean bere Planari buruzko erreferenduma egin ahal izango zuela. Baina haien bilkurak ez zuen fruiturik eman eta lehendakariak Eusko Legebiltzarri bere bidea onartzeko eskatu zion, etorkizunean ETArekin negoziatu ahal izateko herritarren babesa izateko –hark lehenengo biolentziari uko egiten bazion baldintzarik gabe eta betiko–, eta, era berean, alderdi politiko guztien arteko negoziazioak abiatzeko hurrengo erreferendum baten xehetasunak zehazteko –2010eko amaiera baino lehen egitekoa–, beren etorkizun politikoa erabakitzeke autodeterminazio eskubideari buruzko galdera eginez.

Ibarretxe lehendakariaren argudioa zen plan hura eta PSOEek ordurako Loiolako mahaiaren onartu zuena bat zetozela, guztiz. Hala ere, Zapatero presidenteak erreferendum prozesu haren kontrako erabateko oposizioa iragarri zuen, inkonstituzionala zela eta geraraziko zuela promesa eginez. 2007ko ekainaren 27an, botoen alderik estuenarekin (34-33), Eusko Legebiltzarrak lehen erreferenduma onartu zuen, hurrengo urriaren 25ean egitekoa zena. Zapatero presidenteak kontuz erantzun zuen: bera ez zegoela eskualdearen autonomia handiagoaren kontra, Espainiako Konstituzioa bortxatzen ez bazuen eta Euskal Herriko alderdi politiko guztien arteko adostasunaren bermea baldin bazuen, behintzat. Erreferenduma zela-eta, hala ere, artean auzia Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren esku zegoen, haren konstituzionaltasuna erabaki zain. Irailean, hamar epailek gaia aztertu eta plebiszitua inkonstituzionala zela erabaki zuten aho batez, argudiatuz Espainiako Estatuak beste inork ez duela erreferendumak egiteko ahala, eta erreferendum hark espainiar guztiei eragiten ziela, eta ez euskaldunei bakarrik.

Azken oharrak

Idazten ari naizen honetan, euskal erreferenduma atzeratu egin da eta euskal gobernuak auzitegiaren erabakiaren kontrako apelazioa jarri du Europako Batasunean, Bruselan, esanez epaia antidemokrati-koa dela eta herritarren gogoia zapuzten duela. Hurrengo udaberriaren gobernu berria aukeratzeko hauteskundeak izango dira EAEn eta erreferendu-

“**L**oiuko aireportuaren Londoan, Zamudioko parke teknologikoan dagoen hotel baten ostatatu nintzen (...) Gelara joan eta berrien zain egotekoa nintzen. Euskal Herrian ezagutzen nituen gainerako kontaktu guztien ustetan etxera itzulia nintzen, Renora”

mak porrot egin edo bertan behera geratu, eztabaida politikoaren barruan ez ezik, kanpoko zurrunbiloan ere ibiliko da. Hitz bitan, xake jokoak (edo oilar jokoak?) segituko duela ematen du, eta ustekabeko gehiago ekarriko ditu, inondik ere.



2006ko abenduan ETak atentatua egin zuen Barajaseko aireportuan.

“Hala ere, nirekiko, honen guztiaren benetako ikasgai historikoa da egunen batean negoziazio eta akordio politikoa izan beharko dela, euskal gatazka benetan konponduko bada”

Puntu honetara heldurik, lau ohar (espekulazio) egin nahi nituzke:

Espainiako hauteskundeak 2008ko martxoan egitekoak zirenez, 2007ko uda aurretik Zapateroren gobernuua garaiz kanpo –lekuz kanpo– zebilen ETArekiko kontaktu polemiko haiei jarraipena emanez. Are, harrigarria da negoziatioak Barajas eta gero bertan behera ez uztea. PSOEren gobernuko zirkuluko zenbait jokalarik garrantzitsuk sinetsi –edo espero– zuten euskal gatazkaren konponbide negoziatua artean posible zela. Ez bila ibili zelako, baina ustekabea, horrek behin betiko garaipen politikoa emango zion Zapateroren gobernuari hauteskunde atarian.

Batasunak Loiolan amore ez emateak, Nafarroaren etorkizun politikoari zegokionean –edo, behinik behin, nafarrek egun batean nola-halako euskal entitate politiko bat osatzeari zegokionean–, prozesuaren haustura ekarri zuen. Are, Loiolako prozesua hondatu zen batik bat nafarrek ordezkartzaririk ez zutelako, ezta PPK ere, hau da, Espainiako oposizio alderdi nagusia garai hartan. Ez dago garbi Batasuna bere kabuz jokatzen ari ote zen Loiolan ala ETAk loturik zeukan morroia zen. Hitz bitan, gai asko zeuden, Loiolan adostuagatik ere, gerora argitu beharrekoak.

Uste dut bake prozesuaren seriotasunaren eta iraupenaren arrazoi nagusia izan zela alderdiek *grosso modo* izan zuten jarrera aldeko hura. Ari zirela, agerian geratu zen bi aldeek ere nahikoa introspekzio-lan egina zutela eta barne desadostasunek eta politika aldaketek mugatzen zutela negoziatzaileen egitekoa. Hau ez da harrigarria ere, kontuan hartzen badugu gatazkak gutxi-asko ukitu gabe eta, are, konpondu gabe iraun duela ehun urtean baino gehiago. Era berean, uste dut HDCren estrategiak, hots, bitartekaritza eskaintzea, baina gai humanitarioak aztertzeko besterik ez –Loiolako mahaia sortzea ekarri baitzuen horrek ondoren–, modu positiboan lagundu zuela. Prozesu paraleloak, eta ezberdinak, abian izanik,

fronte batean aurrerapenik ez dagoenean, bestean aitzina egitea bihotz altxagarri da, eta bi aldeek onartuko duten konpromisoa iristea posible dela erakutsi ohi du.

Amaitu da? Nahiago dut zalantza izan. Idazki honen arabera, Zapateroren gobernuua da nazio mailako hauteskunde irabazlea; aski lehia estuan bada ere. Berehalako hainbat erronkari egin behar die aurre –egoera ekonomikoa, batik bat–, eta uste izatekoa da horiek Euskal Herriko bake prozesuari berrekitearen aurretik jarriko dituela. Jakin ez dakit horrelako ekimen bat berritzea gogoan duen Madril, ezta ETA orain horretarako prest dagoen ere. Are okerrago, 2008ko maiatzaren 14an ETAk lehergailua eztandarazi zuen guardia zibilen kuartel batean, polizia bat hilik eta beste lau zauriturik. Astea igaro baino lehen, ETako ustezko buru militarra, Frantzisko Jabier Lopez Peña, erakundeko beste zenbait buru beteranoekin batera, atxilotu zuten Bordelen, Frantziak eta Espainiak batera egindako operazioan. Hitz bitan, badirudi ETaren eta Espainiako Estatuaren arteko harremana aurreko egoera hartara (Geneva aurrekora) itzuli dela. Hala ere, nirekiko, honen guztiaren benetako ikasgai historikoa da egunen batean negoziatio eta akordio politikoa izan beharko dela, euskal gatazka benetan konponduko bada. Modu askotan, Franco osteko Espainia demokratikoan ETaren iraunkortasuna are gehiago da denbora pasa benetako arazoa baino. Nahiz eta ETA bere borondatez desegin, edota polizi neurrien bidez suntsizera heldu, gatazkaren oinarrian diren arazo politikoek aztertu eta konpondu gabe irauten duten bitartean, ziurrenera edozein “garaipen” behin behinekoa eta pirrikoa izango da. Euskal auzia negoziatzeko edota hartan bitartekaritza lanak egiteko hamaika saio izan dira iraganean, eta ez dut etorkizuna horrelakorik gabe aurreikusten.

www.argia.com/multimedia

helbidean W. A. Douglassi eginiko elkarrizketa bideoan.

**LARRUN pentsamendu aldizkaria
ARGIArekin batera banatzen da**

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.